

Industria prestatuta al dago ingurune interkonektatuek planteatzen dituzten segurtasun erronkei dagokienez?

2017/02/02

Informazioa eta Komunikazioaren Teknologia industri inguruneetan progresiboki sartzearen ondorioz, segurtasun arriskuak eta gertatzen diren istripuak ugaritzen ari dira. Zibererasoak dramatikoki hazten ari dira, orain dela urte gutxi arte guztiz isolatuta zeuden eta, ondorioz, erasoetatik libre zeuden inguruneak elkarren artean interkonektatzen ditugun heinean.

4.0 Industriako proiektu batean abiatzen den edozein enpresak, handia zein txikia izan, kontuan hartu behar ditu bere ekoizpen prozesuan teknologia jakin batzuk sartzeak nolako eragina izango duen zibersegurtasunari dagokionez.

Esperientziak eta kasu arrakastatsuak partekatzeko eta ideiak esploratzeko, datorren 2017ko otsailaren 23an, Hernaniko Orona-Ideoko instalazioetan, Biltzar bat egingo da, “Zibersegurtasuna: Basque Industry 4.0” izenburupean, SPRIk antolatuta.

Jardunaldiaren programan gaiari buruzko adituek hitzaldiak emango dituzte, eta horrelako inguruneetan erasorik ohikoenen gaineko informazio eguneratua partekatuko dute, batez ere arriskuetatik babesteko edo minimizatze teknika posibleei dagokienez. Halaber, industri enpresek beraiek benetako kasuak ere azalduko dituzte, eta lehen eskutik ezagutu ahalgo izan dira hurbileko esperientziak, sektorean dauden arazoaren antzekoak.

Mondragon Unibertsitateak parte hartuko du jardunaldian, Goi Eskola Politeknikoko Telematika taldeko irakasle ikertzaile Miguel Fernandez Arrietak emango duen tailer batekin, zeinean Zibersegurtasuneko praktika onen katalogo bat azalduko duen, industri automatizazio eta kontrol sistemen esparruan.

Biltzarra informatika, ekoizpen eta zuzendaritzako arduradunei zuzenduta dago, baita enpresaren barruan nola edo hala zibersegurtasunaren arloari aurre egin edo erabakiak hartu behar dituztenei ere.



Zibersegurtasuna: Industry 4.0-ren erronka